

Hiru aditz aurrizki zahar 16. mendeko testuetan

Bernard Beñat, B. Oyharçabal

▶ **To cite this version:**

Bernard Beñat, B. Oyharçabal. Hiru aditz aurrizki zahar 16. mendeko testuetan. Lapurdum, 1997, II, pp.46-62. artxibo-00000052

HAL Id: artxibo-00000052
https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000052

Submitted on 16 Dec 2005

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

B. OYHARÇABAL

HIRU ADITZ AURRIZKI ZAHAR 16. MENDEKO TESTUETAN.

Adizkera jokatuetan agertzen diren elementuen artean, luzaz, euskal gramatikariek ez dituzte elkarretarik berezi, aditz jokadurari berari dagozkion markak eta menderakuntzari dagozkionak. Hobeki errateko, aditzaren beraren jokadurako flexio gisa azterkatu izan dituzte menderagailu batekin agertzen diren adizkerak, morfologiaren eta joskeraren arteko aldea kontuan hartu gabe. Ikuspegi horren ondorio adierazgarrienetarik bat da Humboltek (1817) euskal partizipioez erran zuena, harentzat perpaus erlatibo libroen adizkerak *(dakidana)* baitziren egiazko partizipioak, ideia bera errepikatzen zuelarik haren ondotik A. d'Abbadiek (1836) ere.

Perpaus jokatuetan menderagailu gisa baliatzen ditugun morfemek bi ezaugarri dituzte : lehenik, orain gogorarazi dugun bezala, adizkera jokatuari lotzen zaizkio, harekin morfologian bat egiten dutelarik ; bigarrenekorik, hizki gisa agertzen dira : edo atzizki gisa, edo aurrizki gisa.

Euskara tipologikoki hizkuntza posposizionala denaz geroz, ez da harrigarria atzizki gisa agertzea menderagailuak. Are gehiago, azterketa diakronikoak egin dituzten autoreek kontsideratu izan dute, atzizki menderagailuen oinarrian agertzen den *-(e)n*, hain segur, kasu marketarik heldu dela. Genitiboari dagokiola baieztatu dute Gavelek (1929) eta N'Diayek (1970), inesiboari, berriz, de Rijkek (1972) eta Jacobsenek (1977), morfo-fonologia kontuan harturik. Dakigun bezala atzizki hura da kausitzen erlatiboetan, zeharkako galderetan, perpaus subjonktiboetan, bai eta, beste zenbait atzizki harturik, beste forma askotan ere, agerian *((e)n-ean, (e)n-etik,...)*.

Halere, menderagailu guziak ez dira atzizki, baititugu beste batzuk aurrizki moduan agertzen zaizkigunak. Hauek diakronikoki ez dira kasu paradigmari lotuak, baina enontziazioari, eta bereziki baieztapen markatzaileari (Lafon 1966). Hor ditugu, alde batetik, *ba-* baldintzetako protasietan euskalki guzietan baliatzen dena, eta bestetik, *bait-* egun ekialdeko euskalkietan bereziki baliatzen dena, baina 16. mendean bizkaieraz ere agertzen dena *bai(st)-* forman.

Beste aurrizki bat sar daiteke sail horretan, usaian gramatikariek horrela egiten ez badute ere : inperatiboan agertzen den *h(e)-* aurrizkia, hain zuzen. Gutiz gehienetan, *h(e)-* aurrizkia aurkezten da *d-, z-*, eta *l-* denbora-moduzko aurrizkiak agertzen diren testuinguru morfologikoan, eta horregatik paradigma berean sartua izan da. Ez du iduri, haatik, egoki dela horren egitea, ezen aurrizki horren ezaugarri sintaktikoak kontuan hartzen badira, argi eta garbi ikusten da menderagailuen bereizgarriak dituela, eta ez denbora-moduzko markatzaileen(a)k. Bi argumentu eman daitezke honen erakusgarri :

- *h(e)-* aurrizkiak ez ditu onartzen forma alokutiboak ;

- *h(e)-* aurrizkiak ez daiteke ager beste menderagailu batekin batean (aurrizkia edo atzizkia izan dadin).

Bi ezaugarri horiek menderagailuek badituzte, ez, aitzitik, denbora-moduzko markatzaileek. Bestalde morfologikoki ere ez dirudi *b(e)-*, arras, *d-*, *z-*, eta *l-* denbora-moduzko aurrizkiekin pareka daitekeela. Alabaina, 18. eta 19. mendeko lapurterazko testuetan inperatiboko aurrizkia, hastean marka pertsonala duten adizkerekin ere aurkitzen da. Adibidez, *nihork ez bezaitzate kondena* dio Haranederrek (Kolos. 2, 16), adizkera horretan *be-*, *z-* pertsona-aurrizkia duen *zaitzate* adizkerari lotua izanik. Dakigun bezala, hori guziz ezinezkoa denbora-moduzko aurrizkiekin, hauek aitzinean pertsona markarik ez duten adizkeretan baizik ez baitaitezke ager, salbuespenik gabe *(*dazaituzte)*. Beraz, hirugarren argumentu hau ere eman daiteke, *b(e)-* aurriziki menperatzaileen artean sartzeko :

> - *b(e)-* aurrizkia erabilia izan da zenbait euskalkitan pertsona-aurrizkiak zituzten adizkerekin ere.

Aurrizki menderatzaile bat inperatiboan agertzea ez da batere harrigarri. Lehenik, hizkuntza anitzetan defektiboak direlakotz inperatiboko formak, bereziki 2. pertsona subjektua ez den formetan (gaur egun euskalki gehienetan *b-* aurrizkia agertzeko betea izan behar den baldintzetarik bat[2]) ; bigarrenekorik euskara zaharrak gisa bereko lekukotasunak ematen dizkigulakotz.

Hain zuzen ere, Etxepareren olerkietan eta Leizarragaren itzulpenetan oinarrituz, lekukotasun horiek aurkeztuko ditugu hemen hiru aurrizki bereziki aztertuz : *alba-*, *albait-* eta *ai-*. Aipamen guti izan dute aurrizki horiek gure gramatiketan, salbu Lafonen tesian (1943 : 477-78, 491-495), eta horregatik denen biltzera eta sailkatzera entseiatu gara.

Beraz, hiru aurrizkiak aldizka aurkeztuko ditugu, aldi bakoitz haien agertzea mugatzen duten baldintza morfosintaktikoak zehaztuz, bai eta haien balioa ere. Aipuak emanen ditugu, Leizarragarenen ondotik 1564eko Genèveko testamentu berriaren frantsesezko testua ere eskainiz, bai eta Haranederren itzulpena ere (aditz forma bera itzulia denean bederen). Frantsesezko testu hori zergatik hartu dugun argi da : Leizarragak frantses testua izan zuen eredu bere itzulpena egiterakoan (Ruiz Arzallus 1991), eta 1564eko argitalpen bat harturik, pentsa dezakegu Leizarragak erabili zuen bertsioa izan gabe ere, ez zatekeela biziki urrun[3]. Hala erakustera ematen ere dute hemengo itzulpenek. Haranederren erreferentzia aukeratu dugu, denboran hurbilena baitzen. Ordean, 170 urteko aldea bada bi itzulpenen artean, eta kontuan izanik jatorrizko bertsioak ere ez zirela berak, ez dezakegu konparantza horretarik ondorio handiegirik atera. Halere, konparantzak aurrizkien galera agerian emateko balio duela uste dugu.

1. ALBA- aurrizkia

Alba- aurrizkia hiru aldiz agertzen da Leizarragaren testuetan, eta sei aldiz Etxeparerenetan.

Adizkera trinkoekin *(erran, egin, *edun)* eta adizkera laguntzaileekin aurkitzen da. Azken kasu honetan, adibideen arabera behintzat, aditz lexikala aspektu markaduna bada, aspektu burutua izan behar du. Hots, ez dugu aurkitzen *alba-* aurrizkia, aditz lexikalak *-tzen* (edo are gutiago *-tuko*) aspektu marka dakarren kasuetan[4].

Alba- duten adizkera trinkoak, eta **edin* eta **ezan* laguntzaileak, hipotetikoan dira, salbu kasu batean, eta orduan partizipio perfektuarekin erabilia da (ik. (1)).

Subjektuak lehen (4, 9), bigarren (5, 7) edo hirugarren (1, 8) pertsonak izan daitezke.

Alba aurrizkia *al+ba* morfemez osatua da, eta haren balioa elkarketa horri dagokio : alde batetik, ahala eta, beste aldetik, baldintzako suposizioa adierazten baitu, hala nola *ahal ba-* erabiltzen delarik. (3) adibidean ikus daiteke nola Leizarragaren *egin alba dadi* dioenean (Errom. 12,18), *eguin ahal badadi* ematen duen Haranederrek, bi formen baliokidetasuna agerian emanez. Adibide anitzetan, halako agiantza kutsu bat badute adibideek, supositiboarekin maiz gertatzen den bezala (cf. *balinba*).

Ikusirik aurrizkiak metatzen dituela haren barnean agertzen diren bi morfemen balioak, batek galde egin dezake ea egiazki aurrizki baten aitzinean gauden. Alabaina hegoaldeko testuetan guziz hedatua izan da *al* eta *ba-* modu berean elkarri loturik eta aditzari erantsirik baliatzeko ohitura, bai testu zaharretan, bai eta, adibidez, Larramendiren gramatikan ere. Eta haien kasuan *alba* ez da aurriki gisa kontsideratzen, baina bi morfema desberdin gisa. Zergatik ez gauza bera egin hemen ? Arrazoi bakar batengatik : ez Leizarragak eta ez Etxeparek ez dute sekula silaba bakarreko eta aspiraziorik gabeko formarik erabiltzen *ahal* adierazteko, salbu *alba-* morfoarekin. Auziaren trinkatzeko bide segura izanen genuen, agertu izan balira ezezkako adibideak. Orduan, ezen, ikusiko zen *ez* non agertuko zen : *alba-* aurrizkiaren aitzinean *(ezalba-)*, ala *ba-* aurrizkiaren aitzinean *(al ezba)*. Lehen kasuan, argi geldituko zen *alba* morfema konplexua izanagatik bat zela, hala nola gertatzen baita *albait-* morfemarekin (ik. §2) ; bigarren kasuan, alderantziz, frogaturik geratuko zen bi morfemak zirela, hegoaldeko tradizioan gertatzen den bezala. Zorigaitzez ezezkako adibiderik ez dugu aurkitu, eta, beraz, frogabide hori ezin baliatuzkoa dugu hemen.

Erran behar da, ordean, gure testuetan *ahal* morfema agertzen dela supositiboetan, eta beraz ez dezakegula pentsa *ahal* supositiboetan hartzen duen forma dela *al*. Hona Leizarragaren bi adibide :

Baina deus ahal badaguic (Mark. 9, 22)
Baldin hori sinhets ahal badeçac (Mark. 9, 23)

Segurtamenik ez badugu ere, horrek *alba-* bestelako formatzat hartzera bultzatzen gaitu, hala nola egin baitzuen Lafonek (1943) ere.

1.1. ALBA aurrizkia aditz jokabide perifrastikoan.

• ALBA + *EDUN [+HIP].

ALBALUTE : egin albalute

(1) Eta eguna ethorri cenean, herria etzeçaten eçagut : baina portu itsas adar çuen bati ohart cequizquión, hartara, *eguin albalute*, vncia egotzi aiher ciraden. (Apos. eg. 27, 39)

1564ko Genèveko biblia : Et le iour venu ils ne cognurent point le pays : mais apperceurent un golphe ayant riuage, auquels ils deliberoyent ietter le nauire ***s'ils eussent pu.***

Haraneder : eta gogo çuten untciari han joaracitceco, ***ahal baceçaten.***

• ALBA + IZAN [+HIP].

ALBALIZ : izan albalitz

(2) Ceric cen bada çuen dohainontassuna ? ecen testificatzen drauçuet, baldin possible **içan albaliz**, çuen beguiac idoquiric eman cendrauzquedetela. (Galat. 4, 15)

*1564ko Genèveko biblia : Quelle estoit donc vostre beatitude ? car ie vous porte témoignage que s'il **eust este possible**, vous eussiez arrache vos yeux, & les m'eussiez donnez.*

*Haraneder : Non da bada orduco çuen dohatsutasuna ? Ecen lekhukotassun hau errenda dieçaqueçuet, **possible içan balitz** çuen beguiac iraciric emanen cinarozquitedala.*

• ALBA + *EDIN [+ ORAIN].

ALBADADI : egin albadadi

(3) **Eguin albadadi**, çuetan den becembatean, guiçon guciequin baquea duçuen. (Errom. 12,18)

*1564ko Genèveko biblia : **Si se peut faire**, en tant qu'en vous est, ayez paix avec tous hommes.*

*Haraneder : **Eguin ahal badadi** eta çuen baitan dagoen guçiaz, duçuen baquea guiçon guciequin.*

• ALBA + *EDIN [+HIP].

ALBANENGIDIO : parti albanengidio

(4) **Parti albanenguidio** harc ezluque pareric/Alavana nic ezticit hayn hon deriçadanic. (Amorosen partizia)

• ALBA + *EZAN [+HIP].

ALBAHEZA : eskusa albaheza

(5) Vercen gaztigari inçan oray adi gaztiga/Pena honez orhit eta hangoa ezac cogita/Hebengoaz **vercecoa albaheça** escusa/Vnsa enplegatu duquec heben eure denbora. (Mossen Bernat echaparere cantuya)

ALBANEZA : itzul albaneza

(6) Elas **yzul albaneça** yragan den denbora/Segur oray enyqueci dudan gogoan veharra. (Amorosen partizia)

1.2. ALBA aurrizkia aditz jokabide trinkoan. :

• ALBA + EGIN [+ORAIN].

ALBADAGIK

(7) **Albadaguic** ioan adi eliçara goycian/Ieyncoari han gomenda bere eche saynduyan. (Doctrina Christiana, Goycian)

• ALBA + *EDUN [+ORAIN].

ALBADITU

(8) Hirur gauça **albaditu** ehorc ere eguiaz/Nola ere hil vaytadi doha saluamenduyan. (Doctrina Christiana, Harmac eryoaren contra)

• ALBA + ERRAN [+HIP].

ALBANERRA

(9) **Albanerra** eguya nyc dut pena handia/Secretuqui minça guiten bioc othoy maytia. (Amorez errequericia.)

2. *Albait-* aurrizkia.

Albait- aurrizkia *alba-* baino gehiago agertzen da 16. mendeko testuetan. Leizarragaren testuetan 27 adibide bildu ditut, eta 8 Etxeparerenetan.

Albait- aurrizkia morfologikoki aitzinekoaren irudikoa da, ezen elkarretaratzen ditu *al* morfema eta aditz aurrizki bat, kasu honetan ez *ba-* supositiboa, baina *bait-*. Haatik, guziz desberdina da semantikoki : *al* morfemak ez du ahalezkoa deusetan adierazten, eta aurrizkia agintera irudiko perpausetan agertzen da, Lafonek, horrengatik, *prescriptif* deitu baitzuen. Bestalde, *albait-* ez da edozein alditako adizkerekin baliatzen, baina hipotetikoan direnekin bakarrik.

Albait- bi formatan agertzen zaigu : diptongoa hetsiz darabil kasik beti Leizarragak *(albeit-)*, hetsi gabe Etxeparek *(albait-)*[5]. Aldaketa hori guziz ezaguna da *bait* morfemaren kasuan.

Albait- morfema konposatua bada, aurrizki bakarra da. Hori erakustera ematen digute ezezkoan diren hamar bat adibideek (salbuespenik gabe). Horrelakoetan *ez* morfema *albait-* aurrizkiari juntatzen zaio (ez *bait-* morfemari) : *eta campoetan diradenac ezalbeilitez hartan sar* (Luk. 21, 21).

Lafonek oharrarazi zuen *albait-* noiz baliatzen zen : *pour exprimer un ordre dont l'exécution n'est subordonnée à aucune condition et doit avoir lieu immédiatement.. Quand le verbe est au prescriptif, l'éxécution du procès voulu, ordonné par le sujet parlant n'est pas rapportée au présent immédiat : tantôt, subordonnée à l'accomplissement d'un autre procès qui n'est pas d'ores et déjà réalisé, elle concerne de ce fait l'avenir, tantôt elle dépasse et déborde le moment présent parce que le verbe exprime une prescription permanente, qui peut être catégorique ou subordonnée elle-même à une condition.* (1943 : 491)

Lafonek errana adibide gehienetan egiaztatzen da. Adibidez :

- Perpauseko subjektua (edo beste osagai argumental bat), solas ingurumenaz beste egoera bati dagokion erlatibo libro batek gorpuzten du (cf. (35), (36), (37)), edo erlatibo korrelatu batek (cf. (20), (24), (34), (39)) :

  Orduan Iudean diradenéc ihes albeileguite mendietarát (Luk. 21, 21) ; (37).

  Eta norc-ere nahi vkanen baihau bortchatu lecoa baten eguitera, albeitindoa harequin biga. (Mat. 5, 41) ; (34).

- Agindua denbora markatzaile bati lotua da eta honek haustura markatzen du solas ingurumenaren aldetik. Denbora markatzailea izan daiteke : denborazko perpaus menderatua (cf. (17), (18), (22), (23), (25), (42) (43)), edo denborazko izen sintagma hala nola *bertze aldian* (cf. (19)), *egun hartan* (cf. (21)), *orduan* (cf. (43)) :

  Igor deçadanean Artemas hiregana edo Tychique, diligenta albeitendi enegana ethortera Nicapolisera (Tito 3, 12) ; (17).

  Aleguera albeitzinteizte egun hartan, eta bozcarioz iauz. (Luk. 6, 23) ; (21).

- Agindua baldintza baten konplitzeari darraio (cf. (28), (41)) :

  Eta orduan baldin nehorc badarraçue, Huná hemen Christ, edo, Hará han : ezalbeitzineçate sinhets. (Mark. 13, 21) ; (28).

Hala ere, ez dirudi Lafonek azpimarratu puntu hori ezin besteko baldintza dela *albait-* enplegatzeko. Alabaina Etxepareren testuetan badira adibide batzuk aipatu

azterbideari bizkar ematen diotenak. Horrela *Potaren galdacia* olerkian dialogoak zuzenean ekarriak dira, eta hala-hala andereak pot galdez dagokionari erranak (ik. (30), (33)) :

> *Horrelaco hiz gaixtoric niry eztarradala/**Vercer erran albaytiça** enuc vste duyana. (Potaren galdacia.)* ; (33).

Nekez holako adibide baten kasuan erran daiteke agindua solas egoeratik kanpo kokatzen dela.

Dena dela ongi azpimarratu behar da *albait*-ekilako inperatiboak eta bestelakoak ez direla banaketa konplementarioan. Koordinazioa gertatzen denean, ikus dezakegu batzuetan *albait*-ekilako formak koordinatzen direla (ik. adibidez (15), (16), (22),...), eta beste batzuetan, berriz, inperatibo arruntak (ik. (10), (26), (33),...). Hona bi koordinazio moten adibide bedera :

> *Eta gauça hauc eguiten has ditecenean, **chuchent albeitzinteizte, eta goiti albeitzinçate çuen buruäc**, ecen hurbiltzen da çuen redemptionea.* (Luk. 21, 28) ; (22).
>
> *Eta hatzamanic eramanen çaituztenean **etzaretela aitzinetic ansiatan** cer erranen duçuen, eta **ezalbeitzineçate medita*** (Mark. 13, 11) ; (26)).

Albait- aspektu markarik ez dakarten adizkerekin agertzen da : edo **edin* eta **ezan* aditz laguntzaileei loturik aditz nagusiak aspektu markarik ez izanez, edo adizkera trinkoekin. Bi baldintza badira *albait-* agertzeko :

- adizkera hipotetikoan izan behar da ;
- subjektua 2. edo 3. pertsona izan behar da.

Ohar bedi subjektua 2. pertsona denean ere hipotetikoa agertzen dela *albait*-aurrizkiarekin, eta ez orainaldiko adizkera bat. Beraz kontraste garbia dugu puntu horretan inperatibo arruntekin : *so albaitegi (= so egin ezak), utzi albainenzak (= utzi nazak), albeitindoa (= (h)oa)*, etab.

2.1. *Albait-* aurrizkia aditz jokabide perifrastikoan.

2.1.1. *Albait-* aurrizkia **edin* aditz laguntzailearekin.

• ALBAIT + LEDI : ALBAILEDI

- albailedi segura

(10) Vercen gayçaz cençacia çuhurcia handi da/Yzterbegui duyen oro nitan vedi gaztiga/Abantallan dabilela albayledi segura. (Mossen Bernat echaparere cantuya)

- ezalbeiledi jauts

(11) Eta etche gainean datena, ezalbeiledi iauts deusen bere etchetic eramaitera. (Mat. 24, 17)

> *1564ko Genèveko biblia : Et celuy qui sera sur la maison **ne descende point** pour emporter aucune chose de sa maison.*
>
> *Haraneder : etche gaiñean ditequena **ez bedi jauts** etchetic deussen eramaterat*

(12) Eta etche gainean datena, ezalbeiledi iauts etcherát, eta ezalbeiledi sar deusen bere etchetic eramaitera. (Mark. 13, 15)

1564ko Genèveko biblia : Et celuy qui sera sur la maison, ne descende point en la maison, & n'y entre point pour emporter aucune chose de la maison.

Haraneder : etche gaiñean dena ***ez bedi jauts*** *etcherat, ez barnerat sar, cerbait eramateco guraz.*

- ezalbeiledi itzul

(13) Eta landán datena, **ezalbeiledi** guibelerat itzul bere abillamenduén hartzera. (Mat. 24, 18)

1564ko Genèveko biblia : Et celuy qui est au champ, ***ne retourne point en arriere*** *pour emporter les habillemens.*

Haraneder : eta larrean içanen dena ***ez bedi bihur*** *bere arrobaren hartcerat.*

(14) Eta landán datena **ezalbeiledi** guibelerat **itzul**, bere abillamenduaren hartzera. (Mark. 13, 16)

1564ko Genèveko biblia : Et celuy qui sera au champ, ***qu'il ne retourne point*** *en arriere pour emporter son vestement.*

Haraneder : eta landan ditequena ***ez bedi bihur*** *guibelat bere tresnen hartcerat.*

(15) Egun hartan etche gainean datena, eta bere ostillamendua etchean badu, ezalbeiledi iauts haren eramaitera : eta landán dena, halaber **ezalbeiledi itzul** guibelecoetara. (Luk. 17, 31)

1564ko Genèveko biblia : En ce jour-la qui sera sur la maison, & aura son mesnage en la maison, qu'il ne descende point pour l'emporter : & qui sera és champs, semblablement ***ne retourne point*** *à ce qui lui est laissé derriere.*

Haraneder : Ordu hartan etche gaiñean ditequena eta bere mubleac etchean dituena, ez bedi jauts hequien eramaterat ; eta landan ditequena ***ez bedi bihur*** *guibelat.*

• ALBAI (T) + LITEZ : ALBAILITEZ

- retira albeilitez, ezalbeilitez sar

(16) : Orduan Iudean diradenéc ihes albeileguite mendietarát : eta haren artecoac **retira albeilitez** : eta campoetan diradenac **ezalbeilitez** hartan **sar**. (Luk. 21, 21)

1564ko Genèveko biblia : Alors que ceux qui sont en Iudée, qu'ils s'enfuyent aux montagnes : & ceux qui sont au milieu d'icelle, qu'ils se retirent : & que ceux qui sont és champs n'entrent point dedans icelle.

Haraneder : Orduan Judean direnec ihes eguin beçate mendietarat eta herriaren erdian direnac ***biohaz*** *urrun eta ingurutaco herritan direnac* ***ez daitecela*** *hartan* ***sar***.

• ALBAIT + (H) ENDI : ALBEITENDI

- diligenta albeitendi

17) : Igor deçadanean Artemas hiregana edo Tychique, **diligenta albeitendi** enegana ethortera Nicapolisera : ecen han neguären iragaitera deliberatu diát. (Tite 3, 12)

1564ko Genèveko biblia : Quand j'enuoroyeray vers toy Artemas ou Tychique, ***diligente-toy*** *de venir vers moy à Nicopolis : car i'ay deliberé de*

faire là mon hyuer.

Haraneder : Igorri darotçuquedanean Artemas eta Tichique, ***khecha çaite*** *eneganat ethorcerat Nicopoliserat, ecen han iragan gogo dut negua.*

- *orhoit albeitendi*

(18) Eta erran cieçón Iesusi, **Orhoit albeitendi** niçaz, launa, ethor adinean eure resumara. (Luk. 23, 42)

1564ko Genèveko biblia : Et disais à iesus, Seigneur ***aye memoire*** *de moy quand tu viendras en ton regne.*

Haraneder : Guero Jesusi erraten cioten : « Jauna, ***orhoit çaite*** *nitaz çure erresuman sarthu çaitezquenean.*

• ALBAIT + ZINTE : ALBAITZINDE

- *mintza albaizinde*

(19) : Etay lelo rybay lelo pota franco vercia vego/Andria minça albaycinde verce aldian emiago. (Etchepare, Potaren galdacia)

• ALBAIT + ZINTEZTE : ALBAITZINDEZTE, ALBEITZINTEIZTE

- ilki albaitzindezte[6]

(20) Eta cein-ere etchetan sarthuren baitzarete, han çaudete, eta handic ilki albaitzindezte (Luk. 9, 4)

1564ko Genèveko biblia : Et en quelconque maison que vous entriez, demeurez-y. & ***vous en allez*** *de là.*

Haraneder : Cein ere etchetan sarthuco baitçarete, han egon çaitezte eta ***ez çaiteztela ilkhi*** *handic*

- alegera albeitzinteizte

(21) **Aleguera albeitzinteizte** egun hartan, eta bozcarioz iauz. (Luk. 6, 23)

1564ko Genèveko biblia : ***Esiouissez-vous*** *en ce jour-la, et sautez de ioye.*

Haraneder : Orduan ***çaitezte aleguera*** *eta bozcaria.*

- xuxent albeitzinteizte

(22) Eta gauça hauc eguiten has ditecenean, **chuchent albeitzinteizte**, eta goiti albeitzinçate çuen buruäc. (Luk. 21, 28)

1564ko Genèveko biblia : Or quand ces choses commenceront à ce faire : ***dressez-vous*** *en haut, & leuez vos testes.*

- ezalbeitzinteizte izit

(23) Eta ençun ditzaçuenean guerlác eta seditioneac **ezalbeitzinteizte icit.** (Luk. 21, 9)

1564ko Genèveko biblia : Et quand vous orrez des guerres & seditions, ***ne vous espouantez point.***

Haraneder : Adituco duçuenean, bada, mintçatcen guerlaz eta alboramenduz, ***ez çaiteztela espanti.***

2.1.2. *Albait-* aurrizkia **ezan* aditz laguntzailearekin

• ALBAIT + ZINEZATE : ALBEITZINEZATE

- iharros albeitzinezate

(24) Eta norc-ere recebituren ezpaitzaituzte, eta ez çuen hitzey behaturen, etche edo hiri hartaric ilkitean **iharros albeitzineçate** çuen oinetaco errhautsa. (Mat. 10, 14)

1564ko Genèveko biblia : *Et quiconque ne vous receura & n'escoutera vos paroles, partans de la maison ou de la ville, **secouez** la poudre de vos pieds.*

Haraneder : *Eta norbaitec errecibitu nahi ez çaituztenean eta çuen hitçac aditu nahi ez dituenean, etchetic edo hiritic ilkhitçearequien batean, **iharros çaçue** çuen oiñetaco herrautsa.*

- ezagut albeitzinezate

(25) Halaber çuec-ere ikussiren duqueçuenean gauça hauc eguiten diradela, **eçagut albeitzineçate** ecen hurbil dela Iaincoaren resumá. (Luk. 21, 31)

1564ko Genèveko biblia : *Pareillement aussi quand vous verrez ces choses estre faites, **sachez** que le regne de Dieu est pres.*

Haraneder : *Hala çuec ere icusten dituzquetçuenean gauça horiec guertatcen, **jaquiçue** hurbil ditequela Jaincoaren erresuma.*

- ezalbeitzinezate medita

(26) Eta hatzamanic eramanen çaituztenean etzaretela aitzinetic ansiatan cer erranen duçuen, eta **ezalbeitzineçate medita** (Mark. 13, 11)

1564ko Genèveko biblia : *Quand donc ils vous meneront pour vous liurer, ne soyez deuant en souci de ce que vous direz, et & **n'y medites point**.*

- ezalbeitzinezate sinhets

(27) Orduan baldin nehorc badarraçue, Huná hemen Christ, edo han : **ezalbeitzineçate sinhets**. (Mat. 24, 23)

1564ko Genèveko biblia : *Lors si quelcun vous dit, Voici le Christ, ici ou là, **ne le croyez point**.*

Haraneder : *Baldin orduan cembaitec erraten badarotçue : Huna Christo hemen da et (a) horra hor da, **ez deçaçuela sinhetx**.*

(28) Eta orduan baldin nehorc badarraçue, Huná hemen Christ, edo, Hará han : **ezalbeitzineçate sinhets**. (Mark. 13, 21)

1564ko Genèveko biblia : *Alors donc si aucun vous dit, Voici le Christ ici, ou le vola, **ne le croyez point**.*

Haraneder : *Orduan baldin nihorc erraten badarotçue : Huna non den Christo, edo, Horra non den, **ez deçaçuela sinhetx**.*

• ALBAIT + ZIN(I)TZATE : ALBEITZINTZATE

- goiti albeitzintzate

(29) Eta gauça hauc eguiten has ditecenean, chuchent albeitzinteizte, eta **goiti albeitzinçate** çuen buruäc, ecen hurbiltzen da çuen redemptionea. (Luk. 21, 28)

1564ko Genèveko biblia : *Or quand ces choses commenceront à ce faire : dressez-vous en haut, & **leuez** vos testes : car vostre deliurance approche.*

Haraneder : *Gauça horiec hasten direnean bada heltcen, idec çatciçue beguiac eta* ***altcha*** *buruac, cergatic hurbill baiditeque çuen errestecamendua*

• ALBAIT + NENZAK : ALBAINENZAK

- utzi albainenzak

(30) Hire potac bacyaquyat berce gauça nahi dic/Anderia azti cira nihaurc erran gaberic/ Bada vci **albaynençac** ny holacoz yxilic/ Horreyn gayz ciraden guero eguinen dut verceric. (Potaren galdacia : 4)

• ALBAIT + (H)EZA : ALBAITEZA

- albaiteza konserba

(31) Honequila **albayteça** bethiere **conuersa**/Gaixtoequi ecin ayte gayzqui beci prouecha/Bercer eguin eztaçala nahi eçuqueyena. (Doctrina Christiana)

- egin albaiteza

(32) Eliçara içanian so eguic bateyarrira/Pensa eçac han duyala recebitu fedia/Ieyncoaren gracia eta saluaçeco vidia/Hari **eguin albaiteça** lehen eçagucia. (Doctrina Christiana, Batheyarria)

• ALBAIT + (H) ITZA : ALBAITITZA

- erran albaititza

(33) Horrelaco hiz gaixtoric niry eztarradala/Vercer **erran albaytiça** enuc vste duyana. (Potaren galdacia.)

2.2. Albait- aurrizkia aditz jokabide trinkoan

2.2.1. *Joan* aditza

• ALBAIT + (H)INDOA : ALBEITINDOA

(34) Eta norc-ere nahi vkanen baihau bortchatu lecoa baten eguitera, **albeitindoa** harequin biga. (Mat. 5, 41)

1564ko Genèveko biblia : *Et quiconque te voudra contraindre d'aller une lieuë,* ***vas-en*** *deux auec luy.*

Haraneder : *Eta nihoc bortchatu nahi baitçaitu harequien goaterat milla pausu,* ***çohazco*** *bertce bi mila pausu ere.*

2.2.2. *Egin* aditza

• ALBAI(T) + LEGITE : ALBEILEGITE

- ihes albeilegite

(35) Orduan Iudean diratenéc, **ihes albeileguite** mendietarát. (Mat. 24, 16)

564ko Genèveko biblia : *A donc que ceux qui seront en Iudée,* ***s'enfuyent*** *aux montagnes.*

Haraneder : *Orduan Judean direnec* ***ihes eguin beçate*** *mendietarat.*

(36) Dacussaçuenean bada desolationearen abominationea, Daniel Prophetáz erran içan dena, behar eztén lekuan dagoela (iracurtzen duenac adi beça) orduan Iudean diratenéc, **ihes albeileguite** mendietarát. (Mark. 13, 14)

1564ko Genèveko biblia : Or quand vous verrez l'abomination de la desolation (qui est dite par Daniel le Prophete) estre où elle *ne doit (qui lit l'entende) alors que ceux qui seront en Iudee, **fuyent** aux montagnes.*

*Haraneder :... orduan Judean içanen direnec **eguin beçate ihes** mendietarat.*

(37) Orduan Iudean diradenéc **ihes albeileguite** mendietarát (Luk. 21, 21)

*1564ko Genèveko biblia : Alors que ceux qui seront en Iudee, **qu'ils s'enfuyent** aux montagnes.*

*Haraneder :... orduan Judean direnec **ihes eguin beçate** mendietarat.*

• ALBAIT + (H)EGI : ALBAITEGI

- so albaitegi

(38) Vertan guero **so albaitegui** non den gorpuz sainduya. (Doctrina Christiana, Gorpuz saynduya)

2.2.3. *Erran* aditza

• ALBAIT + ZINARRATE : ALBEITZINARRATE

(39) ALBEITZINARRATE : baina cer-ere emanen baitzaiçue ordu hartan, hura **albeitzinarrate** : ecen etzarete çuec minço çaretenac, baina Spiritu saindua. (Mark. 13, 11)

*1564ko Genèveko biblia : mais tout ce qui vous sera donné en cet instant-la, **dites** cela : car ce n'estes-vous qui parlez, mais le saint Esprit.*

*Haraneder : bainan cer ere ordu hartan berean emanen baitçaitçue, eta hura **erraçue***

(40) Ihardets ciecén, Othoitzeric eguinen duçuenean, **albeitzinarrate** hunela : *Gure Aita...* (Catech. Orationeaz).

2.2.4. *Jakin* aditza

• ALBAIT + LEKI : EZALBEILEKI, ALBAILIAKI

- ezalbeileki

(41) Baina hic elemosyna eguiten duanean, **ezalbeilequi** hire ezquerrac, cer eguiten duen hire escuinac. (Mat. 6, 3)

*1564ko Genèveko biblia : Mais quand tu fais aumosne, ta senestre **ne sache** ce que fait ta dextre.*

*Haraneder : Çuc, bada, eguiñen duçunean amoiña, **ez deçan jaquin** (sic) çure escu ezquerrac cer eguiten duquen çure escuiñeco escuac.*

- albailiaki

(42) Eta hoyec eguiazqui ehorc hala ezpaditu/**Albayliaqui** duda gabe ecin dateyela salbu. (Doctrina Christiana)

• ALBAIT + ZINEKITE : ALBEITZINEKITE

(43) : Hala çuec-ere dacusquiçuenean gauça hauc guciac, **albeitzinequite** écen borthan hurbil datela. (Mat. 24, 33)

*1564ko Genèveko biblia : Vous aussi pareillement, quand vous verrez toute ces choses, **sachez** qu'il est prochain à la porte.*

*Haraneder : hala çuec ere horiec guciac icusten dituzquetçuenean, **jaquiçue** Guiçonaren Semea hurbill eta athean ere ditequela.*

(44) Eta ikus deçaçuenean Ierusaleme gendarmeriaz inguratua, orduan **albeitzinequite** ecen hurbil datela haren destructionea. (Luk. 21, 20)

*1564ko Genèveko biblia : Et quand vous verrez Ierusalem estre enuironnee d'armees, **sachez** adonc que sa desolation est prochaine.*

*Haraneder : Icussico duçuenean, bada, Jerusalem armada batec inguratcen duela, **jaquin çaçue** hurbill ditequela haren desolacionea.*

3. *Ai-* aurrizkia

Ai- aurrizkia gaur egun guziz zaharkitutzat edo hiltzat eman behar badugu ere, lehen aipatu bi aurrizkiek baino luzezago iraun du ekialdeko euskalkietan. Hala iduri du behinik behin.

Joan den mendeko zuberotar gramatikariek ematen digute haren berri : bai Chahok (1836 : 158), bai Inchauspek (1858 : 105-113), bai Gèzek (1873 : 167-8, 191-2), erran gabe hila zela edo desagertzen hasia zela. Bonapartek ere bere *Le verbe basque en tableaux* (1869, 183. o. aldien bildumako taulari mugatuz gero) ematen ditu forma hauek, *temps n'appartenant qu'au souletin* direla gaineratuz, gero.

Orain testuei berei behatzen hasten garenean bizitasun horren hatzik ez dugu kausitzen batere. Ez ditugu eiki testu guziak miatu, baina anitz bai, eta egiaren aitortzeko, ondorioak ez dira gramatikek erranak ikusiz iguriki zitezkeenak.

16. mendean, Etxeparek ez zuen erabili, bai, ordean Leizarragak, baina guti (lau adibide). 17. mendean, Axularrek bi aldiz erabili zuen eta Oihenartek ere berdin. S. Pouvreauk, berriz, anitz, eta kasu batzuetan berak bakarrik eskaintzen dituen forma batzuekin. Antza denaz, ez Tartasek eta ez Belapeyrek ez zuten baliatu, idazle horien argitaratzaileek ez baitigute seinalatzen (P. Altuna, P. Agirre). Gero, 17. mendearen ondotik Mirande arte (erran gabe doa Mirandek liburuetan ikasia zukeela) ez dugu inon kausitzen, salbu aipatu gramatika lanetan.

Chahoren lekukotasuna garrantzi handikoa da. Berak zubererazko paradigmak eskaini zituen bere gramatikan, *ai-* aurrizkiarekilako formak *izan* (NOR bakarrean) eta **edun* (NOR-NORK) aditz paradigmen arabera emanez (eta adibiderik gabe). Nola aurreko gramatika lanetan ez baita batere aipatzen *ai-*, eta nola zubererazko testuetan ez baita agertzen (Oihenarten bi adibide haiek izan ezik, ik. 6. oh.), pentsa dezakegu ahozko mintzairatik ezagutzen zuela Chahok. Bonaparteren erranak ere hipotesi honen berme dira, nahiz bitxi baino bitxiago den ikustea zein guti baliatua izan duten beren testuetan zuberotarrek hango gramatikariek aipatu morfema hori.

16. mendean *ai-* agertzen da *albait* bezala adizkera hipotetikoetan, edo **edin* eta **ezan* aditz laguntzaileekin, edo aditz trinkoekin. Ez zatekeen hori ezin besteko baldintza, Oihenarten adibideek erakustera ematen duten bezala. Alabaina honek *ez ailiz jaio* forma erabili zuen, *izan* aditz laguntzailearekin eta aditz nagusia aspektu burutuan izanik (ik. 6. oharra).

Haren balioa agiantzari dagokio eta botibo moduan definitua da. Duvoisinek, adibidez, edo Haranederrek, *oxala* edo *balinba* erabiliko dute zenbaitetan ingurumen beretan. Leizarragaren lau adibideen frantsesezko bertsioan, berriz, *à la mienne volonté* espresioa kausitzen dugu, iraganaldiko edo perfektuaz haragoko subjonktiboko forma batekin : *aihinz* 'à la mienne volonté que tu fusses'(47).

Ohargarria da, halaber, aditz jokatua aitzinean emana dela, jokabide perifrastikoan aditz nagusia baino lehenago (*ailitez trenca, ainençaçue supporta, aitzineçate regna*) eta kopulari dagokionean, predikatua baino lehen (*aihinz hotz edo eraquin*).

Gure 16. mendeko adibideetan holakorik agertzen ez denarren, subjektua edozein pertsona izan daiteke, lehena ere bai. Horrela diote 19. mendeko gramatika guziek. Egia errateko adibide guti da testuetan holakoa denik. Kausitu direnak Pouvreaurenak dira, hala nola hau :

Hala ere ***aineza*** *oren erditsu hura bedere behar bezala* ***iragan*** *! (Iesusen imitazionea*, 246. o.).

Bururatzeko derragun, kasu batean izan ezik, *ai-* dela beti aurrizkia. (48) adibidean *ait-* agertzen da (*aitzineçate*). Haatik, hapax denaz gero, hutsa izan daiteke edo *bait-*ekilako analogiaz agertu forma bat.

3.1. AI + IZAN (trinkoa)

• AIHINZ

(45) Baceaquizquiat hire obrác, ecen ezaicela ez hotz ez eraquin : **aihinz** hotz edo eraquin. (Apok. 3, 15)

1564ko Genèveko biblia : ***A la mienne volonté que tu fusses*** *froid ou bouillant.*

Haranedern : *Badaquizquit çure eguitateac, ez çaretela ez hotz, ez bero.* ***Ochala*** *hotza* ***baçiñe*** *edo beroa.*

3.2. AI + *EDIN

• AILITEZ : ailitez trenka

(46) **Ailitez trenca** çuec trublatzen çaituztenac. (Galat. 5, 12)

1564ko Genèveko biblia : ***A la mienne volonté que ceux qui troublent vostre repos, fussent retranchez.***

Haraneder : ***Ochala ebakiak ere balire*** *çuec alraratcen çaituztenac.*

3. AI + *EZAN

• AINENZAZUE : ainenzazue suporta

(47) **Ainençaçue supporta** appurbat neure erhogoán, baina aitzitic supporta neçaçue. (2 Korin. 11, 1)

1564ko Genèveko biblia : ***A la mienne volonté que vous me supportissiez*** *un petit en ma folie : & certes vous me supportez.*

Haraneder : ***Nahi nuque paira bacineçate*** *aphur bat ene erguelqueria !*

Duvoisin : ***Ochala*** *aphur bat* ***jasan bazinezate*** *ene sendokeria !*

• AIZINEZATE : aitzinezate regna

(48) Ia asse çarete, ia abrastu çarete, gu gabe reguetu çarete : eta **aitzineçate regna**, guc-ere çuequin batean regna deçagunçát. (1. Korin. 4, 8).

1564ko Genèveko biblia : ***& à la mienne volonté que vous ne regnissiez,*** *afin que nous aussi régnions avec vous.*

Haraneder : *Ja asseac çarete, ja aberastuac çarete ; gu gabe erreguñatcen duçue eta* ***ochala erreguiñatcen bacindute*** *guc ere cuequien batean erreguiña deçaguntçat.*

B. OYHARÇABAL
UPRESA du CNRS

Bibliografia

Itzultzaile edo itzultzaile izenik gabe, 1564. *Nouueau Testament (reueu & corrigé sur le Grec par les Ministres de Genève)*, chez Jean Crespin.

Abbadie, A. de –. 1836. 'Prolégomènes', in A. Th. d'Abbadie & J. A. Chaho, *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne*, 1-50. o., Paris.

Axular, P ; 1643. *Gero*, L. Villasantek prestatu argitalpena, 1976, Jakin, Oñati.

Azkue, R. M. de –. 1923-25. *Morfologia Vasca*, 2. argitalpena, 1969, 2 liburuki, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.

Bonaparte, L.-L. 1869. *Le verbe basque en tableaux*, Euskaltzaindiaren argitalpena in *Opera Omnia Vasconice*, 1, 175-442. o., 1991, Euskaltzaindia, Bilbo.

Calvin, J. *Catéchisme*, 1553ko argitalpenaren edizio berria : *Catéchisme de l'Eglise de Genève*, 1853, Imprimerie Jules-Guillaune Fick, Genève.

Chaho, A. 1836. 'Grammaire euskarienne', in A. Th. d'Abbadie & J. A. Chaho, *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne*, 51-184. o., Paris.

Etxepare, B. 1545. *Linguae Vasconum Primitiae*, P. Altunaren edizio kritikoa, 1980, Lekukoak, 2, Euskaltzaindia & Ed. Mensajero, Bilbo.

Gavel, H. 1929. *Grammaire basque*, 1. liburukia : *Phonétique. Parties du discours autres que le verbe*, Imprimerie du Courrier, Baiona.

Gèze, L. 1873. *Eléments de grammaire de basque*, fac-similezko argitalpena, 1979, Euskal klasikoak, 27, Hordago-Lur, Donostia.

Haraneder, J. de –. 1990 [1740]. *Jesu Christoren evanjelio saindua*, P. Altunaren edizio kritikoa, Lekukoak, 17, Euskaltzaindia, Bilbao.

Humboldt, W. von –. 1817. *Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweyten Bandes des Mithridates über die Cantabrische oder Baskische Sprache*, J. Garateren gaztelaniazko itzulpena : *Correciones y Adiciones al Mithridates de Adelung sobre la Lengua Cantabrica o Vasca*, RIEV, 24-3, 1933, Donostia.

Inchauspe, Abbé. 1858. *Le verbe basque*, Baiona-Paris.

Jacobsen, W. H. 1977. 'The Basque Locative Suffix', in W.A. Douglass, R.W. Etulain & W.H. Jacobsen (argit.) : *Anglo-American Contributions to basque Studies : Essays in Honor of Jon Bilbao*, 163-175. o., Desert Reseach Institute, Reno, Nevada.

Leizarraga, J. 1571. *Iesus Christ gure Iaunaren testamentu berria ; Othoitza ecclesiasticoen forma ; Catechismea ; Kalendrera ; ABC edo christinoen instructionea*, T. Linschmann & H. Schuchardtek prestatu edizioaren fac- similezko argitalpena, 1990, Euskaltzaindia, Bilbo.

Lafitte, P. 1944-62. *Grammaire basque (dialecte navarro-labourdin*, Bigarren argitalpena, zuzendua eta aberastua, 1962, Amis du Musée Basque eta Ikas, Baiona.

Lafon, R. 1943. *Les formes simples du verbe basque dans les principaux textes du 16ème siècle*, Delmas, Bordeaux.

Lafon, R. 1966. 'La particule bait- en basque : ses emplois morphologiques et syntaxiques, *BSL*, LXI, 217-240. o. Paris.

Michelena, L ; 1978. 'Miscelanea filologica vasca, 1 *FLV*, 10, 205-288. o.

N'Diaye, G. 1970. *Structure du dialecte basque de Maya*, Mouton, La Haye-Paris.

Oihenart, A. d'–.1657. *Atsotizac edo Refravac, O. ren gastaroa nevrthizetan*, J.-B. Orpustanek prestatu hiru hizkuntzatako argitalpena : *Proverbes et poésies basques*, 1992, Izpegi, Baigorri.

Pouvreau, S. 1979 [∞1660]. *Iesusen imitationea*, Euskal klasikoak, 25, Hordago-Lur, Donostia.

Rijk, R. P. de –. 1972. *Studies in basque Syntax : relative clauses*, Ph. D., MIT.

Ruiz Arzallus, I. 1991. 'El modelo griego de Leizarraga : una quimera filologica ?', in J.A. Lakarra & I. Ruiz Arzallus (argit.) : *Memoriæ Mitxelena Magistri Sacrum. Pars prior*, ASJUren gehigarriak, XIV, 107-115. o., Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Schuchardt, H. 1923. *Primitiæ Linguæ Vasconum. Einfürung ins Baskische*, gaztelaniazko itzulpena : Tesis y estudios salmantinos III, 1947, Salamanca.

Van Eys, W. J. 1900-01. *Bibliographie des Bibles et des Nouveaux Testaments en langue française des 15e et 16e siècles*, Genève.

Résumé

A propos de trois anciens préfixes verbaux dans les textes du 16e siècle

En basque le marquage de la subordination des phrases conjuguées se réalise au moyen d'affixes se joignant aux formes personnelles des verbes. Ces affixes sont soit des suffixes, diachroniquement issus de marqueurs casuels, soit des préfixes, lesquels sont reliés à la particule d'affirmation positive *bai* 'oui'. Dans ce second cas, il s'agit de *ba-* 'si' qui marque les protases de conditionnel, et *bait-* qui est un complémenteur utilisé dans diverses constructions, et qui peut prendre parfois une valeur causale. Il est proposé dans l'article, d'y joindre également *b(e)*, qui est utilisé à l'impératif lorsque le sujet est de 3e personne, bien que ce morphème soit d'ordinaire analysé comme appartenant au paradigme des préfixes modaux-temporaux *(d-, z-, l-)*.

La vieille langue a laissé le témoignage dans les dialectes labourdins et bas-navarrais d'autres préfixes issus du marquage énonciatif ou modal. Ils sont associés à l'expression de la condition *(alba-)*, de la prescription *(albait-)*, ou du souhait *(ai-)*. Ces préfixes, parmi lesquels les deux premiers surtout ont pris rapidement une allure archaïque, sont inconnus dans la langue moderne, et ont toujours eu, avant même de disparaître, une position plus ou moins marginale.

Seul Lafon dans sa thèse sur le verbe au 16e siècle avait prêté attention jusqu'ici à ces morphèmes. Aussi l'article reprend-il les données de manière exhaustive en se fondant sur les textes du 16e siècle, et plus précisément de ceux de Liçarrague et Etchepare, car lesdits préfixes n'apparaissent dans aucun autre texte du 16e siècle.

Chacun d'eux est successivement examiné, en indiquant les conditions morpho-syntaxiques régissant son emploi, et sa valeur. Tous les exemples rencontrés sont cités suivant le classement des formes verbales préfixées. Pour chacune des formes employées par Liçarrague, et extraites de la traduction du Nouveau Testament, nous produisons la version française proposée par le catéchisme de Genève publié en 1564, car il restitue de fort près le principal texte source qu'a dû utiliser Liçarrague (la source précise n'est pas connue). Chaque fois que la forme préfixée est également traduite dans la version de Haraneder, nous joignons à titre de comparaison cette version. Bien que postérieure d'environ 170 ans, puisque datée de 1740, elle est la plus proche dans le temps de celle de Liçarrague. Ainsi peut-on mettre en évidence que dès le 18e ces morphèmes semblent avoir disparu de la langue, le cas de *ai-*, cependant, méritant une examen particulier de ce point de vue.

NOTE

1. Testu hau Donostiako udako ikastaroetan emanikako hitzaldi bati dagokio. Gaia : *Euskararen historia : arazo zahar, bide berri* (1997/07/30etik 1997/08/01 arte).

2. Beste baldintza da aditz ergatibodunetan absolutiboa lehen edo bigarren pertsonakoa ez izatea, euskalki gehienetan bederen : *beza* edo *bitza* vs *nazala* eta *zaitzala*.

3. Joan den mendearen ondarrean, bai van Eysek, bai Dogsonek, Schuchardtek eta Vinsonek ere nahi ukan zuten Leizarragaren eredu nagusia aurkitu, eta eztabaida biziak ere izan zituzten beren artean grekozko, latinezko eta frantsesezko testuak zenbatetaraino baliatuak izan ziren izartzeko. Ruiz Arzallusek (1991) eztabaida horiek gogorarazi ondoan, erakustera ematen du, hipotesi arrazoizkoena dela Leizarraga frantses bertsio baten arabera ari izana zela. Van Eysek ere bere denboran agerian utzi zuen bezala, frantsesezko anitz bertsio argitararatu ziren eta gehientsuenak galdu izan baitira, arras neke da, edo ezinezkoa, Leizarragaren frantsesezko iturri haren aurkitzea.

4. 16. mendean, *ahal* morfema iraganari ez dagokion egoera bati buruz baliatzen denean ez da *izan* edo **edun* aditz laguntzaileekin agertzen, baina beti adizkera trinkoekin, edo **edin* eta **ezan* (eta **iro*) laguntzaileekin. Hots, ez dugu kausitzen, egun guziz arruntak izanagatik, *egiten ahal dut* bezalako formarik Etxepare eta Leizarragaren testuetan. Alderdi horretarik *alba-* aurrizkiarekin gauza bera gertatzea guziz normala da.

5. Oihenartek 384. errefrauan albai(t)- forma erabili zuen : *Otsoa lagun duanean, **albaihu** hora saihetsean.*

6. Hemen dakargun adibidea (20) eztabaida baten sorburua gertatu da euskal filologian. Ikus daitekeenaz, Leizarragak dioena eta Haranederrek dioena elkarren aurkakoak dira. Lehenbizikoak delako etxe hartarik jalgitzeko manatzen du *(handic ilki albeitzindezte)*, bigarrenak, berriz, ez ateratzeko dio *(ez çaitezela ilkhi handic)*. Desberdintasun horren iturburua grekozko testuaren eta Vulgataren arteko diferentzietan aurkitzen da. Leizarragak dioena grekozko testuari darraio, Haranederren interpretazioa, aldiz, Vulgataren erranari dagokio. Michelenak (1978) hori ikusiz pentsatu zuen menturaz Leizarragak grekozko testua batzuetan bchintzat segitzen zuela, Lafonek ere (1943) erran zuen bezala. Ordean, kasu honek alderdi horretarik ez du gauza handirik frogatzen, baldin eta frantsesezko bertsioan ere baiezkoan bada agindua. Ruiz Arzallusek (1991) 1561eko bertsio baten lekukotasuna ekarri zuen gisa horretakoa, eta hemen dakarguna ere halakoa da : *& vous en allez de là*. Beraz, Leizarragaren itzulpena hemen ere arras hurbiletik jarraikitzen zaio frantses testuari.

7. Hona lau adibideak :

- *Egundan'ez **ailiz jaio** gaxtagina/Edertza, neskato onaren zegina./Edo jai'-eta, berhala/**Hil ailiz** inhar bezala. Oihenart, Neurtitzak.* 6, 13-16.

- *Eta gaixtoeneko kontuan, **aillekitza** hek ere, edo hek bedere **geldi**.* Axular § 116

- *Haur dira, (eta lainkoak **ailliotsa** liren asko) haragiaren bekhatuan ez erortzeko eta eroriz gero ere iaikitzeko hartu behar diren erremediorik prinzipalenak.* Axular § 271.

8. Galda daiteke Pouvreauren lekukotasuna kasu honetan arras fidagarria ote den, ezen *ai-* batzuetan ustc gabeko manеran erabili zuen, hala nola orainaldian *-n* edo *-la* atzizkia zuten subjonktiboko formetan, eta pertsona marka edo denbora marka aurriki gisa zekarten formetan. Ondoko hiru adibideek hori erakusten digute.

- ***ainadilla** bada bizi egin merezi eta behar bezala. (Iesusen Imitacionea, 203).*

- *Jesus Jauna erran eta prometatu duzun bezala, egin ere bedi hala, eta **ainadin** merezidun gertha. (Iesusen Imitacionea,* p. 228)

- *Berdin pairatu behar dut, eta **aidezadan** emeki paira, ekaitza eta tenpesta ioan dadin eta hobeki gerta dakidan artean. (Iesusen Imitacionea,* p. 170).

Ohargarri da lehen adibideari dagokion pasartea Inchauspek *ainendi* erabiliz itzuli zuela :

*Haur naiçula, çoure cerbutzaria, prest nuçu orotara : ezpeiniz bici enetaco, bena bai çouretaco ; **ainendi** ounxa eta çuc merechi beçala !* (Inchausperen itzulp. 154. o.)

Pouvreau dakigun bezala euskaldun berria zen. Berak bere buruz, analogiaz-edo, asmatu ote zituen forma horiek ? Edo *ai* interjekzioa dugu horrelakoetan, loturik idatzia ? Hots, ez aurrizkia, baina beste morfema bat.